

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

3450

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 1ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, zeinaren bidez argitara ematen baita zein erakundek jaso dituzten desabantaila-egoeran dauden taldeetako pertsonen zuzendutako orientazio profesionaleko ekintza eta zerbitzuak gauzatzeko laguntzen deialdiaren babesean eman diren dirulaguntzak.

Dirulaguntza publikoak ematean nahitaezkoa den publikotasun-printzipioa betetze aldera, desabantaila-egoeran dauden taldeetako pertsonen zuzendutako orientazio profesionaleko ekintza eta zerbitzuak gauzatzeko laguntzen deialdiak (erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak onartuta, 2018ko abenduaren 26ko bilkuran, eta 2018ko abenduaren 31ko EHAAn argitaratuta, 250. zk.) 25.7 artikuluan honako hau ezartzen du: prozeduraren ebazpena Lanbideren webgunean argitaratzeaz gainera, deialdi horren babesean emandako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baita bakoitzak jaso duen zenbatekoa ere.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea desabantaila-egoeran dauden taldeetako pertsonen zuzendutako orientazio profesionaleko ekintza eta zerbitzuak gauzatzeko laguntzen deialdiaren babesean emandako dirulaguntzen onuradun izan diren erakundeen zerrenda, eta bertan ondo zehaztea espediente-zenbakia, erakunde onuradunaren izena eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ebazpen honen eranskinean jasotakoaren arabera.

Bigarrena.– Berariaz jakinaraztea deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduerak EGF Europako Gizarte Funtsaren finantzazioa ere jaso dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 aldirako EGFren Programa Eragilearen esparruan eta/edo 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programa Eragilearen esparruan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 1a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

2022ko uztailaren 29a, ostirala

ERANSKINA

Espediente-zk.	Erakundea	Dirulaguntza
2019/COLEC/000002	Agrupación Orientaraba 2017 (Sartu Álava, Asoc. de Reinserción)	437.308,00 €
2019/COLEC/000003	Asoc. Reinserción Social Sartu-Álava	31.008,00 €
2019/COLEC/000004	EHLABE - Gipuzkoa	537.268,00 €
2019/COLEC/000005	EHLABE - Araba	68.612,00 €
2019/COLEC/000006	Asociación Zubiko Trebakuntza eta Lan Sustapena Elkartea	248.200,00 €
2019/COLEC/000007	Agrupación Asoc. Gitana Kale Dor Kayiko - Fund. Secretariado Gitano (Asoc. Gitana Kale Dor Kayiko)	331.772,00 €
2019/COLEC/000009	Fundación Secretariado Gitano	175.576,00 €
2019/COLEC/000011	Agrupación Bategin Bizkaia (Gaztaroa Sartu Koop. Elkartea)	2.419.304,00 €
2019/COLEC/000012	Agrupación Bategin Gipuzkoa - (Peñascal S.Coop.)	854.556,00 €
2019/COLEC/000014	Asociación para La Reinserción Social Erroak	13.872,00 €
2019/COLEC/000019	EHLABE-Bizkaia	488.104,00 €
	Guztira	5.605.580,00 €